

goiena

DEBAGOIENDARROK DIOGUNA



2012-05-21
ASTELEHENA
365. ZENBAKIA
9. URTEA
1,10 EURO
GOIENA.NET
TOKIKOM



JULIO CALLEJA

Gogotsu, Julian Zelaiaren omenez

Oñatiarrek emanaldi hunkigarriak egin zituzten, eta entzuleek bete egin zuten Santa Ana | 32

Milaka debagoiendar irten ziren plazara euskal presoen alde | 4



Hiru herritarrek banketxeen aurkako auzia irabazi dute | 6



Mondra oraindik bizirik dago, Aretxabaletari irabazi eta gero | 24

Tiritirantes taldeko antzezlea, Eskoriatzako ume bat agurtzen.



Eguraldiak lagundu izan balu, festa borobila

Mundumirako antolatzaileak "oso gustura" daude Eskoriatzan eta Gatzagan ospatu den jaiarekin, euria oztopo izan arren | 29

JULIO CALLEJA



Rikardo Azkargorta. | AITZOL BARANDIARAN

Itxitako 36 dendatan herriko artisten lanak jarriko dituzte

Bergarako Udalak eta artistek inguruko herrietara zabaltzeko moduko proiektua dute martxan, eta ekainaren 23an ikusiko dira emaitzak: itxita dauden dendak erakuslehoetan, herriko artistek egindako margolanak, eskulturak, argazkiak eta zeramika-lanak ipiniko dituzte ikusgai. | 2

Oihana Kortazar, berriz ere Zegama-Aizkorriko txapelduna | 26

ASTEKO GAIA 2 | DEBAGOIENA 4 |
ELKARRIZKETA 7 | IRITZIA 8 | HERRIAK 11 |
KIROLA 22 | JAKINGAI 28 | KULTURA 32 |
ZURE IRAGARKIAK 34 | TELEBISTA-IRRATIA 37 |
ZORION AGURRAK 38 | JAIOTAKOAK ETA ESKEKAK 39

2012
2013

OK

Lanerako gertu!

MGEP
MONDRAGON GOI ESKOLA POLITEKNIKOA

Ate Irekien Jardunaldiak

Maiatzak 26, 11:00

GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK
MGEP

- Sistema Elektroteknikoak eta Automatizatuak
- Automatizazioa eta Robotika Industrialia
- Sareko Informatika Sistemen Administrazioa
- Fabrikazio Mekanikoko Diseinua
- Fabrikazio Mekanikoko Produkzioaren Programazioa
- Mekatronika Industrialia

www.mondragon.edu/gmhz
gmhz.mgpe@mondragon.edu
943 71 21 91

Kale zahararentzat, kolore berriak

- ▶ Merkataritzaren gainbeherari irtenbidea aurkitu nahi dio Udalak
- ▶ Herriko artisten lanak jarriko dituzte hutsik dauden erakusleihoetan

AITZOL BARANDIARAN | BERGARA

Kaleak saltokiz husten ari direla eta, arazoari irtenbidea emateko egitasmo berezia jarriko du abian Bergarako Udalak. Hain zuzen, hutsik dauden merkataritza-guneetan herriko artisten lanak jarriko dituzte ikusgai.

Helburua bikoitza da: alde batetik, krisiak ahuldu duen merkataritzari bultzada ematea; eta bestetik, herriaren indarguneetako bat den artisten sektoreari tokia egitea.

Guztira, herriko 36 artistaren lanak jarriko dituzte erakusgai Bergarako puntu ezberdinetan. Lan gehienak Artekalen eta Barrenkalen egongo diren arren, Bidekurutzeta eta San Pedro kaleetan ere apainduko dituzte hutsik dauden erakusleihoak.

Inaugurazioa, sanjuanetan

Begarako artistak erlojuaren aurka ari dira lanean azken asteotan. Zozketa bidez, bakoitzari hutsik dagoen saltoki baten ataria egokitu zaio, eta hura apaintzeko zeregina izango du datozen egunotan.

Lanak ekainaren 23an jarriko dituzte ikusgai, sanjuan bezperan. Egun osorako egitaraua prestatzen ari da Udala artisten laguntzarekin. Bada, suarekin zerikusi zuzena izango duen inaugurazio ekitaldia ikusgarria izango dela aurreratu dute.



Begararen hutsik dauden saltokietako baten erakusleihoa. | A. B.

Artistak, pozik

Saltokietako erakusleihoen tamaina oztopo handia da margolarientzat, teknika bereziak erabiltzera behartzen baititu. Rikardo Azkargorta bergararrak, edozelan ere, poz handiz jaso zuen Udalaren eskaintza: "Alde zaharra geroz eta tristeago ikusten nuen. Ideia ona iruditu zait kaleari bizia ematea, eta artistekin gogoratu izana, are gehiago".

Begararen margotzeko zaletasun handia dago eta horren adibidea da herrian dagoen pintore kopurua. Hasiberriei ere tartea eginez, saltokiak apaintzeko ekimen honetan adin eta maila guztietako margolariei eskainiko zaie beraien lanak erakusteko aukera.



Rikardo Azkargorta margolaria lanean. | A. B.

zenbaki 

aholkulariak-abokatuak

Zure enpresa elkarrekin eramango dugu aurrera

LAN ZERBITZUAK
ZERBITZU FISKALAK
KONTABILITATE ZERBITZUAK
ABOKATUAK

 

Basabe Industrialdea Pab. FO - 10. bulegoa • 25 Postakutxa • 20550 Aretxabaleta (Gipuzkoa)
 Tel.: 943 71 21 12
www.zenbaki.es



Kaleko erakusketa

Juanjo Altuna margolariak ere ilusio handiz esan dio baietz Udalaren eskaintzari. "Proiektu oso berezia da, inguruko herrietara zabaltzeko modukoa. Pozgarria da gure kolektiboa nola batu eta piztu duen ikustea". Artisten artean proposamenak errespetua sortu duen arren, herri mailako erakusketa "aukera paregabea" dela diote, aho batez.

Bergarako margolariak harreman handia dute elkarren artean, eta bakoitzak bere estiloa duen arren, talde mailako ekimena dela uste du Altunak: "Horrez gain, herritarra da ekimen honekin irabazten ateratzen dena: areto edo museo batera joan gabe, kalean aurkituko du goi mailako arte erakusketa".

Lanerako lokalak partekatuta arren, margolari bakoitza bana-ka ari da lanean azken asteotan. Guztira 36 saltoki huts koadroz jantzi beharko dituzte, baina ez dira ikusgai izango margolarien

lanak bakarrik. Hauenaz gain, taldekako beste 3 erakusleiko huts aukeratu dituzte, zeramika egileek, argazkilariek eta eskultoreek beraien lanekin bete ditza-ten.

Bergaran hondartza

Pintzelak eta irudimena zorroz-ten harrapatu ditugu Bergarako margolariak. Rikardo Azkargor-taren esanetan, "artista bakoitzak ez du alferrik galdu nahi aukera, eta ausardiaz jokatu du herri-tarren arreta pizteko".

Rikardo ohituta dago forma-tu handiekin lan egitera. Irudie-kin jolas egiteko asmoa du, ikus-learen sentimenduak nahastu eta probokatzeko helburuz.

Orain arte sekretua ondo gor-de duela aitortu digun arren, Juanjo Altunak ere argitu digu azkenean bere ideia: "oinez doa-nari hondartza bat zapaltzeko aukera eman nahi diot Barren-kalen, Landetako paisaia eder bat marraztuz".

JUSTINA ELEXPURU
TURISMO ZINEGOTZIA

"Margolanekin gure ingurune historikoa biziberritzea da helburua"

Merkataritza bultzatzeko beharraz hitz egin digu Justina Elexpuru zinegotziak.



Zein da ekimen honen asmoa?

Krisiak gogor kolpatu du herri-ko merkataritza eta saltoki askotako erakusleioak hutsik daude. Horri erantzun bat emateko arduratu du Udalak, eta Bergarako margolarien-gana jo dugu laguntza eske.

Eta zein erantzun jaso duzue herriko artisten aldetik?

Aitzakiarik gabea. Eskertzekoa da erakutsi duten borondate ona eta prestutasuna herri-gintzaren alde lan egiteko.

Zein onura ekarriko dio ekimen honek herriari?

Alde batetik, kalean museo bat edukita, herriko artisten lanez gozatzeko aukera. Eta bestetik, bisitariak. Ekimen berezia da, eta kanpoan oihartzuna izango du, modu egokian zabaltzen asmatuz gero.

Turistak erakartzeko amu bikaina

Ingurune historikoa koloretan ekimena Bergara bisitatzeko beste arrazoi bat izatea nahi du Udalak. Turistak ekartzeko helburuarekin, eskuorri edo mapa bat argitaratu dute, artisten lanak non dauden jakin dezan kanpotik herria bisitatzera datorren edonork.

Horrez gain, artelanak ikustera gerturatzen denak informazio gehigarri bat izango du eskura. Proiektuaren nondik norakoak argitzeaz gain, margolari bakoitzaren lanak aldamenean azalpen labur bat izango du artistaren berri emanez.

DEBAGOIENEAN LANBIDE HEZIKETA

BERGARAN:

IEPS Miguel Altuna GLHBI Bergara
Ibargarai 1. Tel.: 943 76 24 91 / 943 76 38 40
Ate irekiak: Maiatzak 19, 11:00etan

■ Erdi Mailako Heziketa Zikloak:

- Mekanizazioa
- Administrazio kudeaketa
- Instalazio elektrikoak eta automatikoak

■ Goi Mailako Heziketa Zikloak:

- Diseinua fabrikazio mekanikoan
- Fabrikazio mekanikoko produkzioaren programazioa
- Automatizazioa eta robotika industrialia
- Administrazioa eta finantzak
- Mekatronika industrialia

■ Espezializazio Graduondokoa: Hotzeko estanzak

- Sarbide frogarako prestaketa kiaseak
- Eskaintza Partziala: Fabrikazio mekanikoko produkzioaren programazioa
- Lanerako formazioa langile eta langabetuentzat ikastaroak
- Eskaeren arabeko formakuntza

OÑATIN:

RM Zuazola-Larraña Institutua
San Lorentzo z/g - 22 pk. Tel.: 943 78 21 50
Ate irekiak: Maiatzak 30, 18:00etan

■ Erdi Mailako Heziketa Zikloak:

- Mekanizazioa
- Mantenu-lan elektromekanikoa
- Natur ingurunean kirol ekintzen gidaritza

■ GM sarbiderako prestaketa kiaseak:

- Euskara, Matematika eta Ingelesa

■ Langile eta langabetuentzat ikastaroak:

- Mekanizazioa, Mantenu lan Elektromekanikoa, Energia Berriztagarriak, Soldadura eta Kirol Ekintzetako Gidaritza

■ Praktikak European egiteko aukera



ARETXABALETAN:

ALE - Aretxabaleta Lanbide Eskola
Etxebarria auzoa z/g - 22 pk. Tel.: 943 79 79 00 / 943 79 79 43
Ate irekiak: Maiatzak 24, 18:00etan

■ Erdi Mailako Heziketa Zikloak:

- Erizaintzako zaintza osagarriak
- Mekanizazioa
- Soldadura eta galdaragintza
- Karrozeria
- Ibilgailuen elektromekanika
- Menpekotasun egoeran dauden pertsonen arreta (A ereduan)

■ Goi Mailako Heziketa Zikloak:

- Metal eraikuntzak (A/D ereduan)
- Fundizio eta pulbimetalurgia bidezko produkzioa (A ereduan, arratsalde)

■ Langile eta langabetuentzat ikastaroak



"ate gehiago irekitzen dizkizugu"

 **ikasLAN**
Gipuzkoa

AURREMATRIKULA: Maiatzaren 28tik Ekainaren 8ra. • **MATRIKULA:** Uztailaren 5etik 11ra.

Milaka debagoiendarrek plazak bete zituzten, euskal presoen alde

Herritarrez gain, musika, dantza eta kultura elkarteek ere bat egin dute aldarriarekin

UBANE MADERA | ARRASATE

Arrasaten, Bergaran, Oñatin, Aretxabaletan... plazak bizi-bizi eta jendetsu izan ziren zapatuan, "euskal presoen giza eskubideen errespetua" eskatzeko. 600 bat lagun Arrasaten, beste horrenbeste Bergaran, 300 bat Oñatin...

Goazen Plazara! mugimenduak erantzun oparoa izan du, beraz, eta milaka herritarrek aldarrikatu dute giza eskubideak direla "bake eta normalizaziorako oinarria", eta haiek errespetatzeak ekar ditzakeela "soluzioei ekiteko egoera egokiak, bazterketarik eta urraketarik gabekoak".

Hiru eskaera nagusi

Hori oinarri hartuta, hiru eskaera zehatz plazaratu gura izan dituzte zapatuko ekitaldien bitartez: gaixotasun larriak dituzten presoek askatasuna; Parot Doktrina bertan behera uztea eta hura aplikatuta duten presoak askatzea; eta presoek sakabana-keta amaitzea.

Ibarreko presoak gogoan

Eta izen-abizenekin, herrikideen egoera salatu eta haien askatasuna eskatu zuten.

Arrasaten, esaterako, gaixodagoen Josu Uribeberria izan zuten gogoan. Besteak beste, ekainaren 9an, Uribeberria preso dagoen Leongo espetxera egingo den martxaren berri eman zuten: "Herrira-k martxa bat antolatuko du udal delegazioa laguntzeko, ekainaren 9an. Handik bueltan, Arrasateko kaleetan manifestazio bat egingo dugu. Ekainaren 9an beraz, goazen Leonera. Josu, herrira!"



Bergaran Udal Musika Bandak ere parte hartu zuen *Goazen Plazara!* mugimenduaren ekimenetan. | BERGARA LIBRE



Oñatin mendi tontorretara eraman zituzten zapiak. | I.G.



Arrasaten kale agerraldia egin zuten, plazan. | JULIO CALLEJA

Horrez gainera, orokorrean kartzela politika aldatzeko exijitu zuten: "Garaia da euskal jendar-tearen gehiengo zabal batek eskatzen duen norabidean urratsak eman eta kartzela politika aldatzeko. Salbuespeneko neurriak, erabaki politiko baten bidez erai-ki ziren gisara, berauek deuseztatu eta konponbidetara eta bakeari ateak parez pare zabaltzeko momentua da", esan zuten.

Kantoren alde, Madrileraino

Bergaran, Luis Mari Azkargorta *Kanto* presoaren egoera salatu zuten, bereziki. Parot Doktrina ezarrita dauka, eta jakinarazi zuten oraingo asteburuko ekitaldien ostean aurrera segi, eta *Kanto*-ren askatasuna exijitzeko asmoa dutela, haren kaleratze eskaera, "ahal bada, Madrileraino iritsarazten, herri ekimenaren bitartez. "Euskal Herrian bizi dugun garai berrian ezinbestekoak dira preso eta iheslarien aldeko urrats edo politika berriak martxan jarri eta mendekuzko eta salbuespeneko neurriak bertan behera lagatzea", adierazi zuten, besteak beste, Iñigo Arregik.

Mendi tontorretan ere bai

Oñatin, mendi tontorretaraino eraman zuten euskal presoek aldeko aldarria, Arranoaitz, Aloña eta Orkatzategiraino. Behelainoan ipini zuten hiru tontorrotan Euskal preso eta iheslariak etxera dioen zapia. Eguraldia ez, baina giroa "bikaina" izan zutela kontatu dute.



Saharar herriari elkartasuna adierazteko ekitaldiak egin zituzten

Nubi elkarteak deituta elkarretaratzea egin zuten eguenean Arrasateko plazan hainbat herritarrek. 1973ko maiatzaren 10ean sortu zuten Frente Polisarioa, eta maiatzaren 20an sahararren borroka hasi zuten. Urteurren horiek ospatzeko musika eta te dastatzea egin zuten herriko plazan.



IÑIGO EZKIBEL



JULIO CALLEJA

Diplomak ingeniari berrientzat

MUko eskola politeknikoan titulatu berri diren 160 ikaslek diplomak jaso zituzten joan den egubakoitzean. MUn doktoratutako bederatzi lagunek ere diploma jaso zuten, eta bostek, Europako Doktore aipamena. Ikasle horiek Ingeniaritzako espezialitateko hauetakoak dira: Automatika eta Industri Elektronikak, Industria Ingeniaritza, Informatika, Industria Antolakuntza eta Telekomunikazioak.

Fisikoki leku berean egon barik batzarrak egiteko zerbitzua ematen duen sistema aurkeztu dute

- ▶ Garaia berrikuntza gunean TelePresentzia gela bat jarri dute martxan Euskal Herriko enpresendako
- ▶ Munduan dauden beste 3.000 gelarekin konektatu ahal izango da Garaia TelePresentzia gelatik

ARANTZAZU EZKIBEL | ARRASATE

Garaia TelePresentzia gela aurkeztu zuten egunean. Munduko beste toki batzuetan dauden enpresa, zerbitzu edo pertsonekin biltzeko zerbitzua ematen du gela horrek, fisikoki mugitu barik. Andoni Gartzia Garaia gerentek adierazi du helburua ez dela beste negozio bide bat irekitzea, berrikuntza gunearen eskaintza osatzea baizik.

Kalitatezko irudia eta soinua

TelePresentzia gela adibide batekin aurkeztu zuten: Arrasate, Madril, Londres, Shanghai eta Bartzelonan zeuden pertsonen bilera moduko bat egin zuten, TelePresentziaren ezauzgarrien berri emateko eta zerbitzu horrek euren eguneroko jardunean ze eragin izan duen azaltzeko. Guztiak mahai beraren bueltan eserita zeudela zirudien, elkarri eskua emateko moduan, kalitatezko irudi eta soinuarekin eta interferentziarik gabe. Cisco TelePresence plataforman oinarritutako zerbitzua da.



Garaia gunean dagoen TelePresentzia gelan egin zuten aurkezpena. | ARANTZAZU EZKIBEL

Denbora aurrezteko balio du

TelePresentzia baliabideak dirua eta denbora aurrezteko aukera ematen du. Izan ere, Espainiako Estatuko enpresek, urtean, batez beste, 13.000 milioi euro gastatzen dituzte negozio-bidaietan –hirugarren gasturik

handiena da, pertsonal eta ikerkuntza eta berrikuntza arloen ondotik–, eta TelePresentziaren bitartez posible da gastu hori %30 murriztea.

Ildo beretik jarraituz, parte-hartzaileek azpimarratu zuten gaur egungo egoera ekonomi-

koan inoiz baino garrantzitsua goa dela negozioa munduan zehar zabaltzea, eta erreminta berri horrek nazioartekotzea erraztu egiten duela, hain zuzen ere. "Han egon, hemen izateko", gehitu zuen Andoni Gartzia gerentek.

DATUA

6

ORDU ASTEAN

Erabiltzaileek diote astean bi eta sei ordu bitartean aurreztu ahal direla.

ESANAK

"Garaia eskaintza osatzea da helburua"

ANDONI GARTZIA
GARAIAKO GERENTEA

Garaia kudeatuko du agenda

Erabilera bakoitzeko 250 eta 420 euro bitartean ordaindu beharko dira; bileraren iraupenaren eta erabiltzen diren monitore kopuruaren arabera izango da hori, eta faktore horien arabera prezio desberdina izango du aipatutako zerbitzuak. Garaia azpiegitura berria edonork erabili ahal izango du: enpresa handi, ertain eta txikiak, zerbitzuek nahiz norbanakoek. Behin eskaera eginda, Garaia bertatik kudeatuko dute agenda.

Nahi baduzu, Gasteizen bizi zaitezke *Sartu eta aukeratu!*



SALBURUA Toni Morrison kalea

BOE bat baino pixka bat gehiagotatik, etxebizitza libreak. Hiru logela, garajea eta trastelekua **199.000** eurotik aurrera (33.110.814 pzta.). Atikoak **205.000** eurotan (34.109.130 pzta.).

Informazio gehiago >



ZABALGANA Cambridge bizitegia

Eraikuntza berriko etxebizitza libreak, bi eta hiru logelarekin eta terraza handiekin. Garajea eta trastelekua barne. **168.000** eurotik aurrera (27.952.848 pzta.).

Informazio gehiago >



BIGARREN ESKUKO ETXEBIZITZAK

Gasteizko gune guztietan bigarren eskuko etxebizitzaren eskaintzarik onena eta zabalena.

Informazio gehiago >



FUEROS ERAIKINA Gasteizko erdialdean

Hirigunean, etxebizitza berri bizi izateko azkeneko aukera. Bi, hiru eta lau logelarekin. Atiko ikusgarriak. **248.218** eurotik aurrera (41.300.000 pzta.).

Informazio gehiago >



"Banketxeei epaitegietan irabaztea posible dela argi geratu da"

Hiru debagoiendarrek banketxe batzuk salatu zituzten 'swap' produktua dela-eta; orain, epaileek arrazoia eman diete, eta bankuak zigortu dituzte

LEIRE KORTABARRIA | ARRASATE

Herritar arruntak dira, eta pentsaezinekora lortu dute: epaitegietan bankuei irabaztea. Bi urte iraun duen prozeduraren ondoren, Aitziber Uribetxebarriak, Gaizka Bolinagak eta Ignazio Bediak arrazoi dutela eta euren salatzen zituzten bankuek informazioa ematerakoan "akatsa" egin zutela erabaki dute epaileek.

Euren arazoa egun batetik bestera hasi zen, ohiko banketxearen bulegoetan. Banketxearekin produktu bat kontratatzeke dokumentuak izenpetzerakoan -hipoteka-mailegu bat, kasu-, eskaintza bat jaso zuten, ustez "asegurua" zena eta inongo arriskurik ez zuena. Euren esanetan, oso denbora txikian jaso zituzten azalpenak. Izenpetu egin zuten eta lasai joan ziren. Baina, handik gutxira, hilerok-hilerok, kargu handiak jasotzen hasi ziren, milaka euroko karguak. Ikertzen hasita, jakin zuten *swap* izeneko produktu eratorri bat zeukatela, eta ez zela ez aseguru bat, ez, are gutxiago, arrisku txikiko produktu bat ere: aitzitik, oso arrisku handiko produktu bat zen,

mundu osoko bigarren mailako interes-tipoen merkatuetako subastatan jokatzeko zena. Abokatu batekin harremanetan ipini ziren eta, azkenean, salaketa ipini zieten banketxeei.

"Onarpen-akatsa egon da"

Auzitegi-prozedura guztiak epai berdina izan dute: "onarpen-akatsa" egon dela, hau da, banketxeek -Santander eta Guipuzcoano- ez zutela bezeroa ondo informatzeko



Gaizka Bolinaga, Ignazio Bedia eta Aitziber Uribetxebarria salatzaileak, abokatuarekin. | LEIRE KORTABARRIA

euren legezko betebeharra ondo bete, eta bezeroek kalte ekonomiko larriak izan dituztela horren ondorioz. *Swap*-en ondorioz galdutako diru guztia bueltatu eta epaiketek ekarri dizkieten gastuak ordaindu beharko dizkiete bankuek hiru debagoiendar horiei.

Kasu asko daude

Euren abokatu Ruben Cuetok dioenez, lorpen handia da honakoa, eta Deba ibar osoan antzeko "kasu asko" daudela esaten du. "Banketxeen aurrean ere, epaiketari irabazi daitezkeela argi geratu da", esaten du.



Gartzten Undagoitia. | TXOMIN MADINA

Gartzten Undagoitia
| Arizmendiko irakaslea

"Etxebizitza eraginkorra egin daiteke, baina erabilera da inportantea"

L.K. | ARRASATE

XXI. mendeko etxebizitzaren gaineko jardunaldiak egin ditu Arizmendi Ikastolak. Gartzten Undagoitia irakasle eta ingeniariaren esanetan, "era ekologikoan eraiki arren, erabilera txarra egin daiteke".

Eraikuntzaren eta eragingarritasunaren inguruko kezka duzue Arizmendin.

Bai. Jardunaldiok orain sei urte sortu genituen, ikusten genuelako ez zela jasangarritasunaz askorik entzuten, higiezin burbuila garaian geundelako. Guretako, oso garrantzitsua da ildo hori, izan ere eraikuntza sektorean birziklatze bat egon behar da.

Ze ondorio atera dituzue aurtengo jardunaldiotan?

Diru-murrizketak egon egongo direla, baina begiratu behar dugula non murriztu, izan ere, jasangarritasunean eta energian murrizten badugu, etorkizunean ordainduko dugu. Izan ere, administrazioen dirulaguntzarik ez dago etxebizitza bat birgaitzeko, erreformatzeko, eta birgaitzeak 12.000 eurotik gorako kostua izan dezake familia batendako.

Energia berritzagarrien inguruan ze proiektu aurkeztu dira?

Isolamenduak, bio-eraikuntza... badaude denetariko korranteak. Baina jardunaldietako beste ondorio bat hau izan da: era ekologikoan edo eragingarrian eraiki daitezkeela, baina erabilera dela oso-oso garrantzitsua.

Eraikinekin herrialde baten energia gastuaren %40 egiten dute. Zer diozu?

Ez dakit %40 hori ez den jasangarria, edo kontsumitzen den %100a den arazoa. Hau da: eraikuntza jarduera indartsua da, eta energiaren kontsumo handia izango du beti. Nik uste dut, baietz, murriztu egin behar dela, baina orokorrean: 20 urte barru oraindik eraikuntza izan daiteke kontsumoaren %40, baina %100 hori da txikitu behar dena.

Fagor Etxetresnak eta Fagor Electronicari diruz lagunduko dioten astean jakingo dute

Fagorreko bazkideek erreferendumak egin dituzte kooperatibaz kooperatiba

L.K. | ARRASATE

Egunotan jakingo da Fagor taldeko bazkideen erabakia, Fagor Etxetresnei eta Fagor Electronicari diruz laguntzearen gainekoa. Hori erabakitzeke, erreferendumak egin dituzte Fagor taldeko kooperatiba bakoitzean, eta boto guztiak gaur, astelehena, dira zenbatzekoak. Izan ere, kooperatiba baten erabakiak gainerakoe-

tan ez eragiteko, boto guztiak batera ipini ondoren zenbatzen dituzte. Kooperatibak euren batzar nagusiak egiten dabilzala aprobetxatu dute Etxetresnen eta Electronicaren egoeraz hitz egiteko eta galdeketa egiteko.

Zehazki, kooperatiba bakoitzeko bazkideei galdetu diote eta Lagun Aroren soldata-taulen arabera %90 kobratzearekin ados

dauden; eta, ildo beretik, Fagor Etxetresnei eta Fagor Electronicari diruz laguntzearekin ados dauden. Etxetresnek 15 milioi inguru jasoko lituzkete, eta Electronicak, 2,1 milioi.

Gainera, Fagor Etxetresnetako eta Fagor Electronicako bazkideek honakoaren inguruan bozkatu behar izan dute: euren soldata jaistea. Zehazki, Lagun

Aroren taulen %86,4an kokatzea. Horrez gain, Fagor taldeko gainerako kooperatibetako bazkideendako proposatutako jaitsierarekin ados dauden ere bozkatu behar izan dute.

Aurreikuspen onak

Fagor Etxetresnek 1.277 milioi euro fakturatu zituzten 2011n, aurreko ekitaldian baino %8 gutxiago. Espainian bakarrik, salmentak %14,4 murriztu ziren. Baina aurreikuspen onak dituzte aurtengo, izan ere, aurten %7 gehiago saltzea aurreikusten dute, eta produktu berriak ikertzeko eta garatzeko 41 milioi euro inbertitzeko asmoa dute.

Behar baino %10 gutxiago batu dela-eta, zergetan aldaketak nahi ditu Ogasunak

Udalen, sozietateen gaineko eta aberastasun handien zerga aldatu nahi ditu

L.K. | ARRASATE

Apirilera arte, Gipuzkoan, joan den urtean baino %9,9 gutxiago batu da zergatan, sarrera gordinak %4,5 murriztu direlako, eta %8,0 gehiago itzuli duelako Ogasunak. Horren berri eman zuen Helena Franco Ogasun eta Finantzetako diputatuak eguaztenean. Hori dela eta, gehiago batzeko neurriak proposatu ditu Foru Aldundiak.

Arduraz jokatzeko deia

Sarreraren atala Foru Aldundiarrendako "funtsezkoa" dela berretsita, Francok udal zerga, sozietateen gaineko zerga eta aberastasun handiei ezarritako zerga handitu nahi dituztela esan zuen, eta hori maiatz amaieratik edo ekain hasieratik aurrera izango dela. Batzar Nagusiei proposatuko dizkiete neurri horiek.

Helena Francok dei egin zien oposizio alderdiei "arduraz" jokatzeko eta diru-bilketa handitzeko proposatzen diren ekimenak "ez zotopatzeko".

Aurreikuspenak ezin bete

Aipatutako %9,9ko murrizketa, zati batean, egoera ekonomikoaren isla dela esan du Ogasunak. Hala "zuzeneko zergen bilakaera

moteltzen ari da, zerga-bilketa garbia %0,7 hazi baita eta martxora arteko hazkundea %5,8 izan zen". Baina Ogasunak gogorazi zuen badirela, baita ere, hori neurri baten eragin duten hiru aparteko gertaera: Roverren itzulketari apirilean egin izana, BEZaren lurralde arteko doiketen murrizketa eta Errenta Zergaren itzulketak aurreratu izana.

Dena dela, Foru Ogasunak esan du, martxora arteko datuekin konparatuta, egoera ez dela nabarmen aldatu, eta, orduan esan bezala, "aurrekontuko aurreikuspenak betetzea oso zaila" izango dela eta "zuhurtziaz" jokatu beharko dela.

Jean Marc Simon | Zero Waste Europeko koordinatzailea

"Gipuzkoak, abangoardian egon nahi badu, birplanteatu egin behar du errauste plantarena"

- ▶ Zero Waste Europe erakundeko koordinatzailea Arrasaten izan da hondakinez berbetan
- ▶ "Helburua da sortzen dugun hondakin guztia edo gehiena birziklatzea eta konpostatzea"

ENKO AZKARATE | ARRASATE

Europako Zero zabor (Zero Waste Europe) mugimenduko koordinatzailea da. Katalana. Formazioz ekonomialaria. Bartzelonan bizi da. Europako hainbat erakundetan jardun du, ingurumenaren, hiri hondakinen, birziklapenaren edota zero zabor filosofien alde lanean, eta urtetan Bruselan bizi izan da. Arrasaten izan zen joan zen astean berbalda ematen.

Ametza da zero zabor espiritua?

Zero istripuak edo zero isurketak esatea bezain erreala da. Garrantzitsuena da helburu argi bat finkatzea. Eta inoiz ez aldentzea ezarritako helburu argi horretatik. Ahalik eta gehien birziklatzea eta, hori lortzeko, ekonomia bir-diseinatzea: ekoizten den eta merkaturatzen den guztia, ondoren zela birziklatuko den aurreikusita izateko. Naturak egiten duena egitea izango litzateke. Naturak ez du hondakinik sortzen; gizakiok ere saiatu behar gara ahalik eta gutxien sortzen. Sortzen dugun guztia edo gehiena birziklatua eta konpost sortua izan dadila, isurketa toxikorik eragin barik.

Herritarrek prest leudeke horretan murgiltzeko?

Jakina! Jendeari benetan gauzak ondo azaltzen badizkiozu, erantzungo dizu ados dagoela, hori nahi duela. Jendeak ez du nahi erabat jasanezina den sistema bat. Ez du nahi kontsumismo basatian oinarritutako erabili eta botatzeko ekonomiarik. Gauzak ondo egiteko hobariak ematen badizkiozu, gehien kutsatzen duenak gehiago ordaintzen badu, gehien birziklatzen edo konpost egiten duena saritzen baduzu, gauzak beste norabide batzean jarriko dituzu. Zero zabor filosofia merkeagoa da eta ez du kutsatzen; ingurumena zaintzen du; aldaketa klimatikoa saihesten laguntzen du. Eta batez ere, lurretik, airetik... produktu kutsagarriak kentzea da helburua. Alergiak, minbiziak... saihesten lagun dezake. Etorkizun hobea dakar. **Bergaran, atez atekoa ezarri nahi duten herrietako baten, dagoeneko, 4.000 herritarren sinadura batu dituzte atez atekoaren aurka...**

Zero zabor filosofia eta atez atekoa ez daude erabat lotuta. Esan nahi dut: zero zabor lortzeko ez da ezinbestekoa atez atekoa. Zero zabor ideiak edo filosofiak dio ekonomia eredu aldatu behar dela, ahalik eta hiri hondakin gutxiena sortzeko. Horretarako sortu behar dira sistemak, %80rainoko birziklatze maila lortzea

ahalbidetuko dutenak. Hau egin daiteke atez atekoaren bidez edo atez atekorik barik. Baina errazagoa da lortzea atez atekoarekin. Orain: inoiz ez ditugu lortuko %80ra arteko birziklatze tasak, jendeari hobariak ematen ez badizkiogu. Esaterako, gaur egungo sistemarekin ez dugu sekula lortuko, gauzak txarto egitearren herritarrei hobariak ematen dizkien sistema bat dugulako. Aldatu egin behar da.

Zergatik sortu da hainbat tokitan atez atekoaren aurkako iritzi edo jarrera hori?

Hein batean, gauzak politizatu direlako. Esaterako, Flandria birziklatze mailaren txapelduna da eta, han, herri eta hiri guzti-guztiek, hau da 308 hiri edo herrik, tamaina ezberdinekoak, atez atekoa darabilte. Eta, han, kolore askotako alderdi politikoei egin zuten bat sistemarekin: izan eskumakoak edo ezkerrekoak. Italian, 1.500 herri edo hiri baino gehiagotan darabilte atez atekoa eta, orain, Erroman, Torinon, Milanen... ere, atez atekoa jartzekotan daude. Europako legediarekin bat egiteko modurik eraginkorrena da.

Noiztik daroatzate atez atekoarekin Flandrian?

Aspaldi dabiltza hiri hondakinen kudeaketarekin arduratuta, ahalik eta gehien birziklatzeko ahalginean eta, esango nuke, 5 bat urte-edo badaroatzatela atez atekoarekin. Oso emaitza onekin. Gipuzkoako herrietan erabiltzen den ereduaren ezberdina da hango atez atekoa.

Hondakinen kudeaketa eraginkorra egiteko, ahalik eta zabor gutxien sortzea eta gutxiago edo beste era batera kontsumitzea ezinbestekoa dela diozu. Horrek talka egiten du sistema kapitalistarekin, ezta?

Ez dut uste. Gehiegizko ekonomia honetan beste modu batera funtzionatzea da gakoa. Erabili eta botaren orde, berrerabiltzea, esaterako. Produktuen iraupena murriztu egin da azkeneko urteotan eta hori ez da bidea. Kontsumo ohiturak berraztertu eta aldatu behar ditugu. Esaterako, produktu fisikoak oparitu beharrean, gauza inmateralak oparitu: kontzertu baterako sarrerak e.a. Hau ez da kapitalismoa zapuztea, baizik eta beste sistema jasagarriago batera aldatzea. Beste era bateko jarduera ekonomikoak bultzatzea. Eredua aldatzeko hobariak ematearen aldekoa naiz. Esaterako, jendeak sortzen duen zaborraren arabera ordaintzea tasak; urarekin, argi



Jean Marc Simon, joan zen egubakoitzean, Arrasaten. | UBANE MADERA

"Erroman, Turinen, Milanen... atez atekoa hasiko dute"

"Flandesko herri eta hiri guztiek darabilte atez atekoa"

"Zero zabor filosofia merkeagoa da eta ingurumena hobeto zaintzen du"

"Danimarkan daude errauste planta gehienak, eta ixtera doaz"

indarrarekin edo telefonoarekin egiten dugun moduan.

Zergatik zaude errauste planten aurka?

Azaldu dudan guztiarekiko koherentziagatik. Baliabideak eskasak diren sistema baten, maximizatu egin behar da berrerabilpena eta materialen zikloa itxi egin behar da. Errauste plantak zera egiten du: materialak edo baliabideak hartu eta erre. Ikuspuntu energetikotik ere ez da logikoa plastikozko ontzi bat erretzea, trukean errekuiperatuko duzulako oso gutxi. Logikoagoa da ontzi hori birziklatzea, emisioen %75 edo %80 errekuiperatuko dituzulako. Argi dago: errauste plantak errekurtsuak erretzen ditu. Ez da belaualdi berriendako irteera. Emisioak txikitzea baldin bada helburua, errauste planta ez da irtenbidea. Beste arrazoi bat: Europa hegoaldean lur arazoa dago, geroago eta lur lehor eta balio bako gehiago ditugu, eta konpostak eskaintzen du lur horiek aberatsago egiteko soluzioa.

Europar badira, hiri erdietan, gainera...

Uste dut aurreko agintaldian Gipuzkoarako planteatu zen proiektua erabat gehiegizkoa zela. 90eko hamarkadan izan zezakeen logikarik, Europako errauste planta gehienak ordukoak direlako. Baina, une honetan, esaterako, Holandan errauskailuak ixten dabiltza; hiri hondakinak inportatzen ditu Erresuma Batutik, errauste plantetan erretzeko. Alemanian ere antzera. Argi dago errauskailua ez dela etorkizuna. Danimarkan daude errauste plana gehienak eta estrategia aldatu dute han, denak ixten joateko. Gipuzkoak, hiri hondakinen kudeaketari dagokionez, abangoardian egon nahi badu, birplanteatu egin behar du errauste plantarena. Duela 20 urte balitz, akaso, baina egun beste norabide batetik doa hiri hondakinen kudeaketa-rena.

Errauste plantaren aldekoek, besteak beste, diote balorizazio energetikoa ahalbidetzen duela eta 60.000 gipuzkoarren argindar premiak aseko lituzkeela...

Bai, egia da argindarra sortuko litzatekeela Zubietako errauskailuan. Argindar gutxi, halere. Argindarra bai, baina berririk ez luke errekuiperatuko Zubietakoak. Hortaz, planta horren inefizientzia nabaria da. Ez da kudeaketa modu egokia.

ZABALIK

OSKAR ELIZBURU
http://goiena.net/iritzia/



Gu ez gara aldrebesak!

Aurreko zapatuan Donostiara joan nintzen, jardunaldi batzuetara. Bertan, Txillardegiren ekarpen oparoak ederto azaldu zituzten eta merezitako gorazarrea egin genion. Ez dizuet, hemen, han esandakoen laburpenik egingo; ezinezkoa da goiz osoko jarduna lau lerrotan biltzea. Esandakoetatik, hemen, 3 aipamen:

-Euskaldunok ez gara aldrebesak. Urte luzeetan, boterean egondako adituak ziria sartzen aritu dira. Mila bider esan digute euskarak ez duela aurrera egiten euskaldunok ez dugulako erabiltzen. Txillardegik egindako azterketa matematikoak, baina, argi uzten du erabiltzeko benetako aukera dagoenean euskaldunok espero daitekeen gaintik erabiltzen dugula euskara. Arazoa da hizkuntza politika aldrebesak ez dutela baldintzak hobetzeko nahikoa egin; zoritxarrez, benetako aukera behar baino txikiagoa dela.

-Euskararen ezagutza unibertsalizatu egin behar da, horri begirako hizkuntza politika jarri behar da martxan. Erdaldun elebarrak inposatzen dute, hemen, beren diktadura. Euskaldunok gara elebidun, hau da, denok dakigu euskaraz eta gaztelaniaz; bigarrena derrigor, legez. Horrela, hizkuntza aukera egitea ez da erreala; pertsonok komunikatzeko behar dugu hizkuntza eta praktikotasunera jotzen dugu. Denok jakin beharrekoa ez bada, batzuek ez badute inoiz ikasiko, euskararen erabilgarritasuna galdu egiten da; ez du balio berdina.

-Identifikaziorako bidea egin behar dugu. Euskaldunok jakin behar genuke gure aurrean dagoenak euskaraz dakien edo ez. Eta hori lortzeko, ikurren baten erabilera proposatzen zuen Txillardegik, hori antolatzea. Euskaraz nork dakien jakitea garrantzitsua da, zenbat aukera daukagun ikusteko eta seguruago sentitzeko euskaraz egiterakoan.

Hortaz, bidea egiten ari gara, ez gara aldrebesak eta elkarrekin aurre egingo diegu trabei.

"Euskararen ezagutza unibertsalizatu egin behar da"

USTEAK USTE

TXOMIN MADINA | tmadina@goiena.com

Mundua gaur egun

Denbora galtzeko Internetek ematen dituen aukeren artean utzidazue bat gomendatzen: *elmundotoday.com* webgunea. Albiste atari bat da, baina berezitasun batekin: albiste faltsuak dira, askok ez dute zentzurik eta denetan umore fin baina era berean absurdoa da nagusi. Adibide bat? *Amona batek deabruari dei egin dio ingeleseko ikastaro baten*, dio titularretako batek. Umorea bai, baina baita gaurkotatuen irakurketa gordina ere: *Erregeak barkatzen diogun galdetzen du eta Bere enpresa irudikariko gastuak murrizteko, ume batek sei hartz-kume kaleratu ditu*, diote beste bi titularrek. Begiratu bat emanez gero, seguru barre behintzat egiten duzuela. Eta egun, hori, ez da gutxi!

KALE INKESTA

Krisia dela eta aditu bilakatu zara edo galduta zabilta?



SIMON
ETXEZARRETA
ARRASATE

"Gauza asko esaten digute, baina bakoitza bere etxean duenarekin geratzen da. Beste batzuen esku gaude".



MARGARITA
ALTUNA
ARRASATE

"Telebistan beti krisiaren gaiarekin dabilta eta Patxi Lopezek Euskadi ondo dagoela entzuteak poztu egiten du".



LUIS JAVIER
ARRIETA
ARRASATE

"Informazioa ematen dute, baina beraiek nahi dutena bakarrik. Badirudi, lanpostuak sortzeko ez daukatela inoiz dirurik".



BEGOÑA
IZAGIRRE
ARRASATE

"Jendea asper-asper eginda dago krisiarekin. Jendea oso deskonforme dago eta horrekin nahikoa esanda dago".

HANDIK ETA HEMENDIK

Pasa badira ere 21 urte

Aritz Galarraga
http://berria.info/blogak/ekografiak/

Datorren asteazkenean estreinatuko dute *Bi eta bat* telesailaren aro berria.

Eta ETB hasi da dagoeneko makinak berotzen.

Asteazken gauean, kapitulu berrien gaineko ordu erdiko erreportaje bat eman zuten, eta orain dela hogeituroko hiru atal pasa zituzten jarraian. [...]

Hiru pertsonaia nagusiak zenbat zahartu diren ikusi genuen hala, eta pertsonaia berriak lehen aldiz ezagutu ahal izan genituen.

Eta ezer ikusi aurretik ez gara hemen debaldeko juzguak jaulkitzen hasiko.

Baina asteazkeneko aurrerapenak zalantza bat utzi zidan: niri bakarrik iruditu zitzaizkidan eskandalagarria eskoteei eman zieten soka?

Zenbat aldiz enfokatu ziguten pertsonaia berrietako baten paparra?

Niri ere, besterik ez genuen behar, eskoteak gustatu egiten zaizkit -are, nahiko ondo geratzen zaizkidala esango nuke-, baina erreportaje horretan kontuaz abusatu egin

zutela iruditzen zait -adingabeko aktore baten bularraldea gehiegitxo erakustera-. [...]

Eneko Olasagasti zuzendariak erreportajearen esan bezala, giza harremanak baitira -beren zabalean- gisa horretako edozein telesailen ardatz.

Eta interesgarria iruditzen zait lehen euskal *sit-com* berriz bueltatzea. [...]

Gainera, huts egiten badie, beti dute asteazkenean erakutsi zizkiguten kapitulu zahar horietara bueltatzeko aukera.

Ondo pentsatuta, ez litzateke ETBren 30 urteak ospatzeko modurik txarrena:

Gauza zaharrak hartu eta berriz ematea.

Tira, nahita edo nahi gabe, aukeraketa bat egina dute jada urteurrenaren karietara prestatu duten iragarkian:

Arale, Dotakon, Arturo Erregea, Txirri, Mirri eta Txiribiton, Andoni Aizpuru, Argiñano, Goenkale eta Vaya semana.

Dena dela, horiek osatuko nituzke Beranduegi.tv saioko lagunek txukundu duten iragarkiaren parodian agertzen direnekin: Amatiño, ertzainak, pilota partidak, Jose Maria Calleja, Estepan Aldamiz-Etxebarria. ETB izan denaren irudi osatuago bat izan dezagun, besterik ez bada.

Kooperatibak Richmond hirian

Joxe Aranzabal
http://goiena.net/blogak/farao/

Kooperatibak hedatzen ari dira, poliki-poliki AEBetan. Richmond hirian, adibidez, San Frantzisko eta Oakland hirien ondoan, Kalifornian. Bertan 100.000 lagun bizi dira, eta krisi ekonomikoaren gailurrean langabezia iritsi zen %19ra, barbaridade bat Ipar Ameriketara. Orain bi urte, bere herritarren egoera ikusita, Richmondgo alkatea, Gayle McLaughlin, berau Partidu berdeko kidea, Mondragoera etorri zen, kooperatiben mugimendua hurbiletik aztertzeraz, eta plan batekin itzuli zen. *Fast Company* aldizkariak kontatzen duenez, gaur egun AEBetan Richmond izango da hiri bakarra udal aholkulari bat duena, kooperatiben gainean laguntzeko. Urtarrilean lehen kooperatiba sortu zen Richmond hirian, Liberty Ship Café, eta bertan saltzen dituzte sandwich osasuntsuak, entsaladak eta enpanadak. Laster, berriz, beste kooperatiba batzuk etorriko dira: bizikleta denda bat, okindegi bat eta eguzki instalazioak egiten dituen kooperatiba.

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

Argitaratzailea Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiba Elkarte
E05 Basabe Poligonoa,
20550 ARETXABALETA
Lehendakaria Estepan Plazaola
Zuzendari nagusia Inazio Arregi

Asteburuko edizio arduraduna
Leire Kortabarria
Maketazioa Kepa Martelo, Imanol Soriano
Publizitatea Mireia Larrañaga,
Amaia Mundifano, Zortza Martin,
Imanol Elortza
Testuen zuzenketa Sergio Azkarate
Harpidetza eta banaketa Marta Leturia
Administrazioa Agurtzane Gaintzarain,
Ane Berezibar, Iratxe Bengoa

EGOITZA NAGUSIA - GOIENA PAPEREA
ARRASATE 20500:
Udalora Lizenziaduna 31 | 132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 00

ORDEZKARITZA
ARETXABALETA 20550:
E05 Basabe Poligonoa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 09

Publizitatea Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05
Faxa: 943 25 05 09 | publi@goiena.com
Harpidetza Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.com
Lege Gordailua: SS-0088/04
ISSN: 2173-707X
Tirada: 5.000 ale
Difusioa: 4.383 ale

OJD erakundeak ikuskatutako astekaria.

GOIENAK ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK orrialdeetan, edo bestelako orrialdeetako kolaboratzaileek, adierazitako inntzien erantzukizunik.



Eusko Jaurilaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Debagoieneko OSASUN ZERBITZUAK



AKUPUNTURA

INTEGU

Arrasate / Uarkape 18, behe, ezk / 943 77 13 34

ETXEBERRIA ANA

Antzuola / Errekalde 6, behe / 943 76 60 13

ALBAITARIAK

ETXEBERRIA JULIO

(DEBAGOIENENKO ALBAITARI OFIZIALA)

Bergara / 609 54 16 13

DENTISTAK

ANE LASAGABASTER

Arrasate / Otorora lizentziaduna 18 solairu artea ezk.
943 79 13 68

AGIRRE HORTZ KLINIKA

Bergara / Ibargarai 9-1B / 943 76 00 23

ARANBURU HORTZ KLINIKA

Bergara / Telesforo Aranzadi 1 / 943 76 02 46

ARRASATE HORTZ KLINIKA

Arrasate / Erdiko kale 50 / 943 79 72 23

ARREGI HORTZ KLINIKA

Arrasate / San Bixente Ferrer 1, behe / 943 79 71 90

BENGOA SAN MIGUEL ANGEL

Aretxabaleta / Durana 14, 1. / 943 79 05 57

BERGARA HORTZ KLINIKA

Bergara / Bidekurutzeta 36, behe / 943 76 05 77

CAVIGLIA SILVANA

Bergara / Simon Arrieta 3-2B / 943 76 38 54

GOROSABEL J. ALBERTO

Bergara / Fraiskozuri 5A, 1D / 943 76 56 88

IRIARTE ANE MAITE / ITZIAR ARANDO

Arrasate / Iturriotz 7 - 1 / 943 79 69 45

IRIARTE IDOIA

Bergara / Artekale 1-1C / 943 76 01 65
Elgeta / Torrealdea 2 behe ezk. / 943 76 80 06

LOPEZ DE GOIKOETXEA

Arrasate / Alfontso X. Jakintsua 5 / 943 79 17 74

MAZMELA BOLINAGA ENRIKE

Eskoriatza / Gorosarri J. plaza 3, 1. esk / 943 71 47 36

SAINZ MALKORRA ANA

Antzuola / Herriko Plaza 4 / 943 78 71 69

DERMATOLOGIA

TAMAYO CONCEPCION

Oñati / Atzeko kalea 6 behe
620 12 48 43 / 943 71 61 82

ENTZUMEN ZENTROAK

INSTITUTO OPTICO - BIOACUSTICA

Arrasate / Erdiko kale 22 / 943 79 71 68

ERREUMATOLOGIA

GORASARRI ZUBIZARRETA, XABIER DOKTOREA

TROJAOLA ZULUETA, LURDES DOKTOREA
Arrasate / Zaldibar kalea, 1-1 / 943 77 00 40

FARMAZIA

AMAIA IGARTUA SAGASTIZABAL

Oñati / Kale zaharra, 1 / 943 78 01 22
amaiaigartua1@gmail.com

HOMEOPATIA

AMAIA IRIARTE (MEDIKU HOMEOPATA)

Arrasate / Nafarroa etorbidea 11
943 08 11 00 / 695 78 19 21

KIROPRAKTIKA ZENTROA

LARRAÑAGA ANDREA

Arrasate / Aprendices 2 / 943 79 92 83

LOGOPEDIA

PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA

Arrasate / Inazio Zuloaga 10 / 943 79 48 77

MASAJISTAK

AZPEITIA IRUNE

Bergara / Ibargarai 44, behe / 943 76 73 43

ETXEBERRIA ANA

Antzuola / Errekalde 6, behe / 943 76 60 13

OPTIKAK

BEGIONDO OPTIKA

Aretxabaleta / Loramendi 10 / 943 79 98 21

ORTOPEDIA

MARIA VICTORIA ANITUA

Aretxabaleta / Belorrieta auzoa 1 / 943 08 11 43

OSASUN-DIAGNOSTIKOAK

UDALAITZ MEDIKU-ZENTROA

(ERRESONANTZIA MAGNETIKOA)
Arrasate / Nafarroa Etorbidea, 3 / 943 79 44 22

OSTEOPATIA

BENGOA NEREA

Arrasate / Erdiko kale 22, 3 ezk / 659 58 66 89

ETXEBERRIA ANA

Antzuola / Errekalde 6, behe / 943 76 60 13

PODOLOGOAK

ERDIKO KLINIKA PODOLOGIKOA

Arrasate / Erdiko kalea 54, behe esk. / 943 79 97 46

IKERLEKU PODOLOGIA ZENTROA

Bergara / Ikerleku zeharbidea z/g / 943 76 07 84

ONEZ PODOLOGIA KLINIKA

Aretxabaleta / Belorrieta 10 / 943 79 16 45

PSIKIATRA

GALLASTEGI PABLO

Bergara / San Martin plaza 2-1. ezk. / 943 76 26 64

PSIKOLOGOAK

GARMENDIA LANDER

Arrasate / Obenerreka 2, 7H / 943 79 35 86

NUÑEZ TXOMIN

Arrasate / Olarte 10 / 943 79 88 16

PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA

Arrasate / Inazio Zuloaga 10 / 943 79 48 77

YOGA

SAMADHI YOGA

Bergara / Masterreka 13, behe
943 76 11 38 / 639 23 57 53.

UDAL ORDEZKARI IZANDAKOAK

Luis Etxeberriarteun | EAko zinegotzia Arrasaten (2003-2007)

- ▶ Obra, zerbitzu eta mantentze Sailean egin zuen lan
- ▶ Ezker abertzalea Udaletik kanpo, kalean ez zen giro
- ▶ Hainbat obra esleitu edo gauzatu zituzten

"Kalean denetarik entzun behar arren esperientzia oso ona izan zen niretako, oso pozik egin nuen lan"

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE
Ezkondu ostean, 1972an, etorri zen Arrasatera Luis Etxeberriarteun (Aretxabaleta, 1948). EAJn banaketa eman zenean Carlos Garaikoetxearekin harreman ona zuela eta erabaki zuen Eusko Alkartasunan afiliatzea. Hori baino lehenago ez zuen sekula politikari moduan jardun. **Obretako zinegotzi izan zinen lau urtez. Nola gogoratzen dituzu alderdien arteko harremanak?**

Ezker abertzalea legez kanpo egoteak baldintzatu zuen legealdia neurri handi baten. Kalean ez zen giro, denetarik entzun behar izaten genuen. Argi daukat egotera horren errudunak ez ginela gu izan eta ideologia guztiak errespetatzearen alde egin genuen. Bestalde, Udalean alderdien arteko harremana ona izan zen. Hasieran behintzat bai, gero gauzak endredatzen hasi ziren eta, batez ere Gelmako eta Polmetasako kasuengatik. Ni EAn sartu nintzen Arrasateren alde lan egiteko eta lanpostu horiek herrian bertan geratzeko egin nuen lan.

Gelmako kasuak eragindako liskarrak EAJ barruan eman ziren, nahiz eta eurekin batera joan ginen hauteskundeetan. Kasu horretatik bereiztu egin nintzen; ni lan egiteko sartu nintzen, ez

nire burua aberasteko. Nire helburua bete nuen.

Isaias Carrasco alderdi sozialistako zinegotzi izan zen legealdi horretan. Izan zenuen harremanik berarekin?

Bai. Obra, zerbitzu eta mantentze batzordeko kide Paco Gartzia zen baina etortzerik ez zuenez, Isaias Carrascorekin elkartzen nintzen. Lanerako gertu zegoen eta harreman ona egin nuen berarekin.

Osoko bilkurak astelehenetan egingen zenuen, goizeko bederatzietan. Zergatik?

Kalean zegoen giroagatik erabaki zen ordu horretan jartzea, osoko bilkurek normaltasunez aurrera egin zezaten. Ni ezker

abertzalea kanpoan egotearen kontra nengoen, baina ez zegoen nire eskuetan. Osokoak arratsaldean eginez gero bagenekien liskarrak egongo zirela.

Hainbat obra egin ziren legealdi horretan. Zeintzuk nabarmenduko zenituzke?

Kiroldegi berria izan zen lan handiena. Obra oso garrantzitsua izan zen, lorpen handia. Kudeaketa ona egin zen, baita enpresa eraikitzailearen aldetik ere. Hori bai, kostu handia izan zuen. Era berean, Kulturate ere nabarmenduko nuke, oso proiektu ona eta garrantzitsua izan delako Arrasaterendako. Gogoratzen dut desfase handiak izan zirela hasie-



Etxeberriarteun 2006ko Salbean, protestak ondoan dituztela. | ARRASATE PRESS



Luis Etxeberriarteun joan den astean, Alkartetxearen atarian. | JOKIN BEREZIARTUA

rako aurrekontuaren eta gero benetan kosta zuenaren artean.

Beste hainbat lan amaitu, abian jarri edo esleitu ziren: Biteri plaza, Abaroa berria, Makatzenako ortuak Garagartzara eramatea... Izan ere, diru-laguntza handiak ematen zituen orduan

Diputazioak, eta horregatik hainbat lan egin ziren. Beste garai batzuk ziren; egun udaletxeak ez ditu laguntza horiek jasotzen.

Udaletxean egin zenuen legealdian zerekin geratzen zara? Eta, zer ahaztuko zenuke?

Pertsonalki oso esperientzia ona eta aberasgarria izan zen, ezagutzen ez nuen mundua zelako. Oso pozik egin nuen lan eta nuen onena ematen saiatu nintzen. Harreman onak egin nituen, egun oraindik mantentzen ditudanak.

Eta, zer ahaztuko nukeen? Oroitzapen bat badago ahaztea lortzen ez dudana: San Juan bezperako Salbean entzun behar izaten genituen irainak eta horrez gain, herritarrak guri harrika ibiltzea. Ez dut gorrotorik gordetzen, baina ezin dut ahaztu. Ez geunden eurak kanpo egoterekin ados, baina guk ez genuen zertan hori ordaindu behar.

"Osokoak arratsaldean eginda bagenekien liskarrak egongo zirela"

"Salveko irainak eta herritarrak guri harrika ibiltzea ez dut ahaztea lortzen"

MUNDUMIRA

GOIENA TELEBISTA | MAGAZINEA

ASTELEHENEAN, 20:15 ETA 22:15 | TXOMIN MADINAK AURKEZTUA

GOIENA TELEBISTA | JAIK: MUNDUMIRA

EGUBAKOITZEAN, 22:40

